

Felisa Bergaretxe Ardanza

Elgoibar, Gipuzkoa
(1915-2018)

Aurkibidea

Biografia



Ermuan jaio zen 1915. urtean. Sei anai-arrebaren artean hirugarrena, 1939. urtean etorri zen Elgoibarrera. "Ama eta nere atzetik datozen neska bixak ni baino lehenago etorri ziren Elgoibarrera, baina aitxa kartzelan zegoela ni Bilbon gerau nintzen hura zaintzearren". Emakume langilea, Sigmako fabrian aritu zen josteko makinak probatzen; denda eta taberna ere bere ardurapean izan zituen. Itziarren ezkondu zen 1949. urtean, eta bi seme-alaba izan zituzten. "Nere gizonari *Sangre Vasca* deitzen ziuena Elgoibarren, toki guztietan euskalduna sentitzen zelako".

Zintak

EGB-039

- **Proiektua:** Elgoibartarren esanetan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Data:** 2002-01-10
- **Iraupena:** 126 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Izagirre, Eli
- **Transkribatzailea(k):** Irisarri, Estitxu

Pasarteak

1. Euskaraz egiten zuten eskolan erdaraz ikasi arren

- **Erref:** EGB-039/001
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Ermuan jaio zen 1915ean. Sakristian ikasten zuten dotrina. Beraien artean euskaraz egin arren, irakasleek ez zieten uzten euskaraz egiten. Bere ahizpa gazteagoak Aldundiak jarritako auzoko eskoletan ibili ziren eta haiek euskaraz ikasi zuten. 12 urtera arte ibili zen eskolan.</p>

Transkripzioa

- "En Ermua nací el diecinueve de abril", gero han, ba, hamabi urte, ba! Hamabi urte arte.
- "¿Del año quince, no? ¿Mil novecientos quince, no?"
- Orduan ikasten gendun euskeraz dotrina zerian, sakristian emoten oskuen ta erderaz, orduan ez euan euskerarik eittia gure zerian, eskolan ez [doskuen] guri, e! Baiña euskeraz... guk euskeraz eitten genduan, e! Baiña, ostian, maestria be kastellania zan, baiña "aparte de eso no había, entonces solamente eso". A! Ta gero egon zian nere aitzak gaztiauak ya zerak ifinitta, e... "escuelas... barriadas Eizaga y San Lorenzo" ya han euskeria be emoten eben. Diputaziñuak edo jarri zuan "Las escuelas...", e...
- Zuk esan dezu Ermuan jaixo ziñala.
- Bai.
- Ta zenbat urtera arte? Hamabi urtera arte esan dezu han egon ziñala edo zenbat urte artera egon ziñan?
- Hamabi urtera arte eskolan esan dotzut nik.
- A, a, eskolan Ermuan.
- Bai ba! Ta gero ba... errekauek ein ta bata ein ta bestia ein ta amari lagundu ta etxian ortuak be baeuazen ta...

2. Ama Debako hotelean lanean eta aita mikelete

- **Erref:** EGB-039/002

- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:02:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

12 urtera arte ibili zen eskolan eta handik atzera amari edo aitari laguntzen etxean. Ermuan jaio zen, kalean. Bere gurasoak baserritarrak ziren, baina bera jaio zenerako kalean bizi ziren. Amak Debako hotelean lan egiten zuen lehengusinari laguntzen, eta aitak arma-fabrikan lan egiten zuen. Krisia egon zenean mikelete egon zen aita Donostian.

Transkripzioa

- Zuk esan dozu Ermuan jaixo ziñala.
- Bai.
- Ta zenbat urtera arte? Hamabi urtera arte esan dezu han egon ziñala edo zenbat urtera arte egon ziñan?
- Hamabi urtera arte eskolan esan dotzut nik.
- A, a, eskolan Ermuan.
- Bai ba! Ta gero ba... errekauek ein ta bata ein ta bestia ein ta amari lagundu ta etxian ortuak be baeuazen ta... Aittak porruak ifintzen zittuanian, ba nik, harek zera ein ta nik han ipini zerak, porruak, e! [...] zentimetro bat zeran gaiñian, e! Hantxe. Ondo. Ta gero ba etxeko... bai!
- Bai ta Felisa, zu Ermuan nun jaixo ziñan, baserri baten edo kalia?
- Ez, ez; kalia, kalia. Gure aitta ta ama basarrikuak izetez. Baiña, e... ordurako ya kalera...
- Etorritta zeuden?
- Harek kalia, bai ba. Soltera... Gure ama egoten zan udan, hamen, Deban. Lehengusiña eben hamen zela, hotel e... lehenaoko hotel bat.
- Elgoibarren zauana?
- Ez, zerian..."En esto..."
- Altzolan?
- Deban. Ta han egoten zan... ai... izena!
- Miramarrera...
- Eon, eon. Lehengusiña zan hango zera ta han pasatzen eban hareri laguntzen egoten zan e... zerian, aitzen dozu? Ta aitta barriz "era" e... pistolan-ta eitten ebana.
- Eskopetak.
- Eskopeta. "Pero también hubo" krisia edo zeozer denporia "y estuvo en San Sebastián de esto, antes de... antes de casar, e! Estuvo en..." Donostian egon zan mikelete.
- Bai "policía", bai e...
- Mikeletia.
- Mikelete, mikeletia.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com